

Liburuak

KRITIKA


Izendaezinaz.

Tere Irastortza. Pamiela.

110 orrialde. 13 euro.

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez



Elkarritzketak

TERE IRASTORTZAREN *Izendaezinaz* saiakera irakurtzean, Raymond Carverrek idatzitako lan handi baten izenburua heldu zait gogora: *What We Talk About When We Talk About Love*?

Carverrek, lan horren bitartez jakin izan zuen jasanezina edo debekatua zen hori izendatzen, eta bide beretik abiatu da orain idazle zaldibiarra: Zer esaten dugu amodioaz, heriotzaz zein beldurraz mintzo garenean? Aske al gara horietaz erosotasunez hitz egiteko?

Gai horien inguruko hausnarketatik abiatuz, arte dialektikoaren formulaz baliaturik, historiarekiko elkarritzeta pertsonala luzatzen du. Esan ohi da historia zera dela: bere horretan mantentzeko eta bizirauteko gauzatua den botere-diskurtsoa; eta konturatzen bagara, historikotzat hartzen den hori, modu naturalean emana dela pentsarazten zaigu. "Gizakiak aldakortasuna eta inguruneak iraunkortasuna isladatzen duela" zioten topikoak, jadanik zaharkituak gelditu zaizkigu; orain ingurunea aldakorra da, bere hastapen eta zergatiekin.

Zergati horien bilaketa-prozesu gogoetatsua da, ehun orrialde hauetan zehar irakurtzeko —eta idazlearekin mintzatzeko aukera ere— eskaintzen zaiguna. Printzipio erlijiosoei erroturiko hizkuntza eta historia baten —gure historia— analisisa eginez, irakurlea hausnarketa horretan aktiboki parte hartzera bultzatzen du: Zer da Jainkoa? Nor naiz? Nor gara? Zer ikasiarazi zaigu? Izan ere, gaur egun garena —norbanakoa dena— ulertzeko ezinbestekoa baitugu aurrekoarekiko elkarritzeta gauzatzea, "gure pentsamenduak iraganik gabekoak ez direla uste dudalako", idazleak berak dioen gisara.

Nori ez zaio gertatu zenbait gaien inguruan aritzean, tabuak zein dogmak direla eta ez direla, "esan-ez esan" gelditzen garelako askotan, zergatia jakin gabe?

"Zildai horretatik askatzeko erabili ohi da literatura eta idazketa". Esan ezina esangarri bihurtuz, albokoekiko elkarritzeta abiatuz, oraina aldatzeko eta garatzeko esperantzaz beteriko bidea zabaltzen dugu. Eta zer da literatura, ez bada esatari eta entzule baten arteko elkarritzetarako zubia?


"Gu" baten existentziak jabetzen garenean, trukaketa horren beharraz jabetzean, ekin diezaiokegu norbanakoaren identitatea bilatzeari. Gizadiak eta osatzen gaituen guztiaz galdetzea —bizitzaz, heriotzaz, amodioaz, beldurraz...—, norberaz galdetzea da.

Tere Irastortzak XXI. mendeko gizadiak galdezka, hausnarketarako bide dialektikoa abiatu du. Elkarritzeta horren ildoari eustea ez da lan erraza izango baina, alferrikakoa ere ez. ■

Imanol Urbietaren ibilbide pedagogikoa

Imanol Urbietaren ibilbide pedagogikoa bil-tzen duen liburua argitaratu du Elkarrek. Musikagilea eta irakaslea, zarautzarrak lan ugari egin ditu bizi osoan irakaskuntzaren alorrean. Txiki-txikitatik musikaren zale, 1960eko hamarkadan euskal kantagintzaren mugimenduan parte hartu zuen, eta Haur Kantarien

Mugimendua sortu zuen Zarautzen. Beste lan askoren artean, berari zor zaio 1984an Donostian Xirula Mirula sortu izana, haurrak musikaren bidez hezitzeko puntako gunea. Kanta askoren sortzailea, Euskal Herriko haur belaunaldi askok nekez ahaztuko dituzte *Txiki, txiki, txikia* edo *Behin betikoren* moduko kantak. Liburu eta CD honetan dituzu horien atzean zeuden ideiak. ■



Nire ibilbide pedagogikoa. Imanol Urbiet. Elkar. 111 orrialde. 13 euro.

Bernardo Atxagari buruz Egan aldizkarian

Egan aldizkariaren 2009ko lehen aleko gai nagusia Mikel Hernandez Abaituak Bernardo Atxagari buruz idatzitako artikulua da. Zehazki, Hernandez Abaituak Atxagaren plagioari buruz idatzi du, *Obabakoake*ko ipuin ezagunetik tiraka. Horrez gain, Iñaki Aldekoak *Ernazimentua Lazarragaren literaturan* izeneko artikulua idatzi du; Juan Luis Zabalak 2008an argitaratutako euskal liburuaren zerrenda plazaratu du; Karmele Igar-tuak Marina Tsvietáieva-ri buruz idatzi du; Luis Mari Mujikak Arabako euskal toponimia-ri buruz; Iñaki Zubeldiak *Nimen uhartea* liburuaren zinemarako egokitzapenari buruz; Jean

Etxepare "gaztea"ren *Iturralde*a nobelaren zati bat ere argitaratu dute. ■



Egan. Batzuen artean. Euskalerriaren adiskideen elkartea. 256 orrialde. 18 euro.